ERRENTERIAKO UDAL ALDIZKARIA | 28. zenbakia | 2023ko abendua

# Errenteria

## HERRI BIZIA




## AUKERA GUZTIAK DENENTZAT

## Mindara, inclusión real

*Errenteria Bizia* 2. ORR. >>
*Aldakoenea auzo-etxea* 3. ORR. >>
*Agintaldi Planaren aurkezpena* 6. ORR. >>
*Herri Bizia* 8. ORR. >>
*Mindara elkartea* 12. ORR. >>







# Aldakoenea, el Ayuntamiento más cerca de los barrios



***La rehabilitación del antiguo parvulario de Aldakoenea convertirá el edificio en oficinas de varios servicios municipales, acercando el Ayuntamiento a la ciudadanía.***

Faltan unos últimos flecos para que el antiguo parvulario de Aldakoenea se recicle y ofrezca nuevos servicios. Para la ciudadanía, el edificio supondrá un antes y un después en la relación que tienen con el Ayuntamiento, y viceversa.

Los vecinos de Igantzi, Beraun, Galtzaraborda, Kaputxinos y Alaberga Alta podrán llevar a cabo todas las tramitaciones que se pueden realizar en el servicio ZU! de la casa consistorial en Aldakoenea. No solo eso: las y los usuarios de servicios sociales de esos cinco barrios recibirán este servicio en el nuevo edificio. Además de los trámites administrativos, el espacio tendrá una zona dedicada a la lectura de prensa, gestionada por la biblioteca, donde también se podrán devolver, a través de un buzón, los libros adquiridos mediante el servicio de préstamo. Para terminar, habrá salas polivalentes al alcance de los grupos, las asociaciones o comunidades de vecinos.

La antigua guardería consta de tres pisos, y la distribución ya está proyectada. En la planta baja, de 517 metros cuadrados, se sitúa la zona de atención ciudadana, igual que en el edificio del Ayuntamiento. Habrá cuatro trabajadores y trabajadoras. Además, dos administrativas de servicios sociales compartirán espacio con el resto, y será allí donde recibirán a los usuarios y usuarias. Convivirán con ellos un policía local y un recepcionista. El espacio para la lectura y el depósito de libros —por ahora no habrá servicio de retirada— se situarán también en la planta principal. Diferirá con los espacios del Ayuntamiento en que tanto el servicio de atención ciudadana como la oficina de servicios sociales se cobijarán en el mismo edificio.

La primera planta —de 431 metros— estará dedicada totalmente a los servicios sociales. Seis trabajadoras y una coordinadora serán quienes ocupen esa planta. El último piso, —de 397 metros cuadrados— estará a disposición de los colectivos vecinales y del barrio,







*«Igantzi, Kaputxinoak, Beraun, Galtzaraborda eta Alabergako bizilagunentzat dago bideratua zerbitzua»*

así como de las comunidades vecinales. Habrá que reservar los espacios con antelación.

A la hora de plantear la obra del edificio se han tenido en cuenta las experiencias anteriores y cada espacio se adecua a las necesidades: los materiales del servicio de atención ciudadana serán porosos para que la acústica sea buena; las oficinas de las trabajadoras sociales estarán equipadas con doble puerta; hay elementos acristalados para facilitar una visión completa en todo momento...

### Atención al %40 de la población

¿Quién podrá hacer uso de los servicios sociales del edificio de Aldakoenea? La respuesta es fácil: aquellas personas a las que Osakidetza haya asignado el ambulatorio de Beraun. La oficina de la calle Santa Clara, por tanto, estará destinada a aquellas que están asignadas en el de Iztieta. El objetivo de esa medida es que las y los usuarios sean siempre atendidos por la misma persona.

«Con esta distribución», afirma el Ayuntamiento, «el %40 de los expedientes que se tramitan en servicios sociales pertenecerían a las personas que viven en Alaberga Alta, Beraun, Galtzaraborda, Igantzi y Kaputxinos». Del total de casos que se atienden en servicios sociales, el %60 de las personas usuarias tiene 65 años o más. «Mucha gente que es usuaria de los servicios sociales va a verse beneficiada por este acercamiento, porque a cientos o miles de personas se le va a acercar el Ayuntamiento hasta al lado de casa».

El Ayuntamiento ha calculado el número de atenciones que prestará el nuevo edificio: «Al año en el Ayuntamiento se tramitan unas 40.000 gestiones de atención ciudadana, y extrapolándolo, serían unas 10.000-12.000 al año las que se atenderían en Aldakoenea. En lo que respecta a servicios sociales, serían unas 8.000 consultas».

Errenteria Herri Bizia Udal Aldizkaria-Revista municipal 28. zenbakia

## Udala, hurbilago

Errenteriako Udala Aldakoeneako haurtzaindegia zena biziberritzen ari da. Azken ukituak falta zaizkio, eta 2024ko lehen hiruhilekoan irekiko ditu ateak.

Mugarri izango da udalerriaren mendebaldeko auzo altuetako bizilagunentzat, baita udalarentzat beretzat ere. Alaberga Goiko, Beraungo, Igantziko, Galtzarabordako eta Kaputxinoetako auzotarrek Aldakoenean egin ahal izango dituzte ZU! herritarren arreta zerbitzuko tramite guztiak. Horrez gain, gizarte zerbitzuen zati bat ere bertara mugiaraziko dute. Administrazioaren kontuez gain, lasai irakurtzeko txoko bat izango du eraikin berriak, baita ere auzo horietako kolektibo eta elkarteentzako zein bizilagun-komunitateentzako askotariko erabilerarako guneak.

Hiru solairu izango ditu. Behekoan herritarrentzako arreta orokorra izango da, lau langilerekin. Bertan hartuko dute aterpe gizarte zerbitzuetako bi admnistrarik, baita udaltzain eta harrerako langile banak ere. Irakurketarako gunea bertan izango da; liburutegiko liburuak utzi ahal izango dira (jaso, oraingoz ez).

Lehenengo solairuan gizarte zerbitzuetako sei langile izango dira, eta haiei gehitu behar zaie koordinatzailea. Bigarren solairua erabilera anitzeko gelentzako izango da; aldez aurretik erreserbatu beharko da tokia.

Ekipamendua egokitutakoa izango da: material porotsua jarriko dute, akustika hobetzeko; gizarte zerbitzuetako langileen ateak bikoitzak izango dira; kristalezko egiturak presente egongo dira, ikusgarritasuna bermatzeko...

Gizarte zerbitzuen erabiltzaileak zehazteko garaian, Aldakoenera joan behar dutenak izango dira Osakidetzako medikua Beraungo anbulatorioan dutenak. Modu horretan, gizarte zerbitzuek artatzen dituzten kasuen %40ri Aldakoenean emango diete arreta. Kontuan hartuta gizarte zerbitzuen %60k 65 urte edo gehiago dituztela, udala haiei asko hurbilduko zaie.

Hala ere, norbaitek herritarrentzako arreta zerbitzuak udaletxean duen bulegora joan nahiko balu, libre da, ez zaio inori arretarik ukatuko.



*«Hiru pisutan, hainbat zerbitzu eskainiko ditu udal azpiegitura berriak»*

Ante la duda de si un vecino o vecina de Beraun —por poner un ejemplo— tendrá que hacer todos y cada uno de sus trámites en el nuevo edificio de Aldakoenea. La respuesta es clara: no. Siguiendo con el ejemplo, si alguien se acerca hasta la Alameda un lunes de mercadillo, de paso podrá tramitar una gestión en el edificio del Ayuntamiento.

Con Aldakoenea, el Ayuntamiento ha querido hacer una apuesta importante tanto estratégica como económicamente. Con un solo objetivo: acercar la propia institución a la ciudadanía, por el bien común.







*2023-2027 Agintaldi Planaren aurkezpena,*
*Agustinak eraikinean*
*Presentación del Plan de mandato 2023-2027*
*en el edificio Agustinak*

*infórmate del día a día en*
***herriko egunerokotasunaren berri izateko***
»

# HERRI BIZIA
herribizia.errenteria.eus



«
## Oarsoaldea biziberritzeko
Se han analizado las posibilidades que ofrece la Economía Azul para revitalizar la actividad económica de la comarca



»
## Espuma en Alaberga
Alabeerga garagardo feria egin dute lehenengoz auzoan, giro ederrean





«
## Más y mejor
Baserritarrek euren produktuak saltzeko gune berria dute Jose Erbiti kalean

Errenteria Herri Bizia Udal Aldizkaria-Revista municipal 28. zenbakia

»
## Sormen poloa prest
El polo de industrias creativas abrirá pronto sus puertas en Las Agustinas







«
## Energia más sostenible
Errenteriako bost udal eraikinetan instalazio fotovoltaikoak ezarri dira

»
## Giza eskubideak, 'Ametsetako lurra'-n
Diciembre ha sido el més de los derechos humanos. Se han realizado múltiples actividades



## Solidaridad y fiesta

Juneren Hegoak elkarteak bere egun handia ospatu zuen urriaren 21ean, herritarrekin batera





## Otsailerako prest

Las obras de renovación de la cubierta de la piscina de Fandería van según lo previsto




## Renovado a los 50

Udaletxeko areto nagusiko Valeriano Lecetaren murala berritu da; 2024an mende erdia beteko du



# //udal taldeen mezuak//

### IMPUESTOS Y PRESUPUESTOS DE ERRENTERIA

[PP]

Llegaron los días más importantes del año para que las decisiones económicas en el pleno de Errenteria sirvan para seguir andando por el buen camino para y por el pueblo. Desde el Grupo Municipal PP Errenteria nos hemos esforzado en revisar cada una de las partidas de impuestos y presupuestarias. Hemos querido modificar impuestos y presupuestos en favor siempre del pueblo, pero a la hora de la verdad tanto el Gobierno Municipal como la oposición, aun siendo beneficio directo para el pueblo de Errentería, han votado que no a todas nuestras propuestas.

Incluso negociando con el actual Gobierno Municipal, nos habían dicho que eran muy buenas, pero a la hora de la verdad puede más el orgullo de la formación política que el beneficio para el pueblo.

Triste será que el año que viene hagan suyas las ideas de los demás y se refleje su pobreza institucional para con el beneficio de la ciudadanía.

### LLEGA ALDAKOENEA CON 9 AÑOS DE RETRASO

[PSE-EE]

Aldakoenea fue un compromiso de 2015 que ha experimentado reiterados cambios desde que se anunció como "Biblioteca", pasando en 2019 a «Centro Cultural», y en 2021 a «Centro Social». Aldakoenea es el ejemplo de la forma de gestionar de EHBildu, 9 años para restaurar un edificio, un desembolso millonario, con 3 proyectos diferentes y sin contar con nadie.

En 2015, los socialistas fuimos los primeros en proponer que en Aldakoenea debería ir el ZU! con servicios y espacios para el barrio. El proyecto actual acoge algunas de nuestras propuestas, pero la inclusión de oficinas municipales limita el espacio de servicios para el barrio.

Recientemente, hemos propuesto la inclusión de un servicio de Familia Gunea, pero EHBildu votó en contra. Los socialistas seguiremos proponiendo mejoras y nuevos servicios para Aldakoenea.

### PRESUPUESTOS 2024 AURREKONTUAK

[EAJ-PNV]

EAJ-PNV udal taldeak, aurrekontu proiektuaren gabeziak antzemanda, hainbat zuzenketa proposatu zituen. Proposamenak arlo ezberdinei eragiten zieten, esaterako: zaborrontzi irisgarriak ezartzea,Udal Euskaltegian online klaseak eskaintzeko inbertsioa egitea, herriko puntu beltzen eguneraketa eta esku hartzea, erretiratuen diru-laguntza partida handitzea, errenteriako merkataritzan online salmentarako plataforma garatzea proposatu genuen, besteak beste. Una vez realizadas las propuestas para mejorar los presupuestos para el 2024, nos encontramos con el rechazo del equipo de gobierno a las mismas. Aun así, desde EAJ-PNV seguiremos trabajando y haciendo propuestas para mejorar la calidad de vida de los errenteriarras.

### PLAN BERRIA, ERRENTERIA HOBERAKO

[Elkarrekin Errenteria]

Pasa den azaroan, Agustinetan aurkeztu genuen 2027ra arte garatuko dugun agintaldi plana. Oraingoan ere, zazpi ardatz garrantzitsuren inguruan landutako dozenaka proiektu jasotzen ditu planak, zaintzetan, berdintasunean, jasangarritasunean eta auzoetan garrantzi berezia jarriz.

Queremos seguir caminando con asociaciones y ciudadanía que trabajan en el día a día para hacer Errenteria mejor, con un pacto que dirige recursos a luchar contra la violencia machista, a abordar la prevención de la salud mental entre las personas jóvenes y la soledad no deseada entre las mayores, a generar y renovar espacios para que sean más habitables y amables con el entorno, o que revitaliza y conecta los barrios.

Errenteriar guztiontzako bizimodu duinak bermatzea, planaren helburua eta gure konpromisoa.

### UDALA, GERTUAGO

[EH Bildu]

Mugarri garrantzitsua izango da Aldakoenearen irekiera gutako askorentzat. Udalarekin dugun harremana erraztuko digu eraikin berriak. Udala, lehen baino gertuago izango dugu orain. Eta espazio berriak, plaza berri bat eskainiko digu auzoari, auzo bizitza indartzen lagunduz.

Gure ustez Aldakoenea udal eredu honen adibide garbia da. Udala herritarrongandik gertuago aritzea. Ahal den guztietan herritarrokin batera. Eta politiken erdigunean herritarrak jarrita. Izan ere, jakitun gara, gaur gaurkoz udalak, oro har erakunde publikoek, bere aldetik bakarrik ezingo diegula aurre egin ate joka ditugun erronka handiei. Etorkizun oparoak eraikiko baditugu, herritar, eragile eta erakundeon arteko elkarlana ezinbestekoa izango dela. Herri partekatu bat, herritar guztiok hobeto bizi gaitezen.



# Aukera guztiak denentzat



*Mindara elkartearen zeregina da pertsona guztiek berdintasunean bizitzeko aukera izan dezaten lan egitea, esparrua edozein dela ere. 2011. urtean hasi ziren misio hori betetzeko ardurarekin.*

2011an hasi ziren jarduera fisiko inklusibo, kirol egokitu, aisia eraikitzaile eta osasunaren alorra lantzeko zereginean. Mikel Izagirre, 2019an zendua, izan zen integrazio egitasmoaren ideologo eta bultzatzaile nagusia. 2013. urtean, berriz, herrira begirako lanarekin hasi ziren. Mindara Elkartea herriaren eta eskualdearen ikurretakoa da egun. Izan ere, aniztasun funtzionala duten pertsonen eta haien senideen elkargunea da Markola hiribideko 24. zenbakian egoitza duen eragilea, «pertsona ezberdinak berdinak diren lekua da», esaten dute. Datu bat: aurten, 80tik gora erabiltzaile eta familiari eskaini diete era batera edo bestera arreta jarraitua, eta harrera puntuala 120 familia baino gehiagotara iritsi dela jakinarazi dute.

Euren zeregina, ordea, ez da mugatzen aniztasun funtzionala dutenengana. Elkartetik adierazi dutenez, edonork parte har dezake abian dituzten programetan, ateak zabalik dituztelako pertsona, ideia eta egitasmo berrietara. Hala, bi atal edo proiekturekin ari dira bidea egiten elkartearen barruan. Lehena Egokide da: haur, gazte eta nerabeei kirol inklusibo eta egokitua egitea ahalbidetzen dien programa da, hala noa futbola, pilota igeriketa, jolas kooperatiboak eta bestelako asko; bigarrena, berriz, Gizakide da: aisia eremuan berdinen arteko harremanean sakontzea da horren indargunea, erabiltzaileen ahalduntze eta identitate indartze prozesuan gizarte erlazioak oinarri izanda, gizarte-integrazio normalizatua lortze aldera.

«Mindarak aniztasun funtzional fisiko edo intelektuala duten pertsonen inklusioan lanean dabiltzan erakunde eta taldeen laguntzaile eta erreferentzia izan nahi du. Denok ditugu gaitasunak eta ez-gaitasunak, baina denak gara, salbuespenik gabe, autonomoak eta dependenteak aldi berean», zehaztu dute elkarteko kideek. Hala, pertsona guztiek, euren egoera edozein dela ere, dagozkien zerbitzu guztietara sarbidea izan behar dutela uste dute, eta horretarako garatzen dituzte esku artean dituzten programak.



## *Mindara lleva desde 2011 trabajando con personas con diversidad funcional*

Herrian zeharo txertatua dagoen elkartea da Mindara. Ezagunak dira jada herriko egutegian haiek egiten dituztenak. Horri guztiaren aitortza jaso zuen elkarteak, herritarrek hala erabakita, 2014ko Madalen jaien txupinazoa bota zuelako elkarteak EMKEren bandarekin batera.

### Haur izatetik, heldutasunera

Mindara sortu zenean batez ere haurrei, kirol egokituaren ikuspegitik, ematen zien zerbitzua. Orduko hartan haur zirenak, ordea, heldu dira egun. «Ume ziren horiek 20-24 urte artean dituzte egun. Gogoeta egin, eta helduaroari begirako eskaintza ere izan behar genuela erabaki genuen. Hortaz, laneratze prozesuan, edo emantzipazio prozesuan laguntza ere eman behar dugula erabaki genuen, betiere erabiltzaileen profilaren arabera», zehaztu dute elkarteko kideek.

Hortaz, nabarmendu dute zentzu horretan familiekin harreman estuagoa izateko espazioak beharko lituzketela, «haiek sare bezala funtzionatzea nahiko genuke, informazioa partekatzeko edo beste edozer gauzarako. Hor familienak diren gauza asko daude. Oso inportantea da guk elkarte bezala informazio hori jasotzea, eta familia guztiekin partekatzea». Hori egitea hasieran erraza zela esan dute Mindaratik, «baina orain 80tik gota familia gara, eta zailagoa da dena, asko handitu garelako. Horren antolaketan urratsak eman nahiko genituzke».

Aldi berean, aniztasun funtzionala dutenen hezkuntzan eragin nahi dutela adierazi dute. «Errespetu osoz, hezkuntza eredua ezin da berbera izan pertsona guztientzat. Bestelako gaitasunak dituzten pertsonekin lan egiten dugu, beraz, uste dugu haien hezkuntzak ere beste era batekoa izan behar duela».





Mindara se fundó en el año 2011, y desde 2023 lleva trabajando para que las personas con diversidad funcional (física e intelectual) tengan las mismas oportunidades en lo que respecta a la actividad física y la participación social. Fue Mikel Izagirre el que impulsó esta inciativa.

La asociación defiende que todas las personas tienen capacidades e incapacidades, y que todas las personas son, sin excepción, autónomas y dependientes a la vez, «por lo tanto, debemos de estar en igualdad de derechos y oportunidades».

Este año han recibido servicio continuo desde Mindara más de 80 personas, y si se agregan las que han recibido atención puntual, el número asciende a más de 120 actuaciones. Ya son conocidos en Errenteria, puesto que creen que su actividad tiene que ir más allá del local que tienen en Markola.

## *Trabajan para que todas las personas tengan igualdad de derechos y oportunidades*

Herrian ekarpena egitea garrantzitsua da haientzat. «Programa guztiekin saiatzen gara gure egoitzan ahalik eta gutxien egoten. Udalak lokal berria utzi digu. Handiagoa da, oso ona. Baina beti egoitzatik ateratzen saiatzen gara gure jarduerak egiteko, hori estrategikoa da guretzat. Kaleko espazioa betetzea garrantzitsua da guretzat».

Ikusgarritasuna bilatzen dute, ez ezikusiak sentitzen direlako, baizik eta sinisten dutelako kaleak denenak eta denentzat direla. «Jende guztiak ezagutzen gaitu jada. Oso pozgarria da hori. Herritarren babesa sentitzen dugu. Elkartearen erabiltzaileak gure harreman sare onena dira, oso harro daude elkartearen bitartez egiten dutenaz».

Mindararen balioen zerrendan, lehena, konpromisoa eta inplikazioa daude. Konpromisoa ustez ezberdin diren horiek berdintasunarekin bizi behar dutela sinisten dutelako. Eta inplikazioa, elkarteko begirale, boluntario, langile, erabiltzaile edo familietako kide bakoitzak ahal duena ematen duelako denek eskubide eta aukera berdintasuna izan dezaten. Pertsonen gaitasun guztiak dira haien lanerako eremu.



## *Argazki zaharra*

Agustinak auzoak, Agustinen komentuari zor dio izena. 1543an, orduko herriko agintarien baimenik gabe kronikek diotenez, eraiki zuten komentua Barbara, Catalina eta Mari Juan de Asteasu mojen ekimenez. Baina garapen urbanistiko eta hazkunde handiena 1970eko hamarkadan izan zuen herriko harresitik hurbil, baina kanpo dagoen auzoak. 1973. urtekoa da ondoko irudia, auzoaren hazkundearen arokoa.

## *Ba al zenekien...*

La extensión de Errenteria es de 3.193 hectáreas

Errenteria tiene una extensión de 3.193 hectáreas, es decir, la superficie total de la villa es de 31,93 kilómetros cuadrados. De todos ellos 2.458 hectáreas están catalogadas como no urbanizables, 267 son para uso residencial, 102 para actividades económicas y 364 corresponden a los sistemas generales (carreteras, vías de tren...).



## *Txoko bat*

Alaberga auzoaren beheko eta goiko zatiak batzen (ala zatitzen) ditu baso batek. Aldi berean muga, lotura eta birika izaera ditu Alabergako basoak. Zeharkatzen duen igogailu sistema eraiki aurretik, jende andanak erabiltzen zuen goiko auzoetara joateko, eta haurrek jolasean aritzeko. Orain, ez du hainbesteko trafikorik, baina aisiarako gune bezala garatu da. Aurreko funtzio berbera izaten jarraitzen du: auzoko bihotz berdea izatearena.

# BATU ZAITEZ

# únete

## a los canales de

## HERRI BIZIAren

# TELEGRAM

# WHATSAPP

# KANALETARA




HERRI BIZIA

ERRENTERIA UDALA